

Ane Asín Muratori
San Fermín Ikastola, Zizur Txikia (Nafarroa)
EUSKERA



Marenen Lenteak

Umeak barrezka, korrika, jolasean, saltoka. Nire logelatik parkea begiratzen dut arratsaldero Marenen zain. Beti pentsatzen dut zergatik izan ote nuen horren zorte txarra loteria genetikoan, izan ere, lagunekin jolasean egon ordez ikastolan goizean emandakoa ulertu behar izaten dut. Nik ez dut letra bidez asko ikasten, errazagoa egiten dut marrazki, zirriborro eta irudi bidez ikastea. Honetan laguntzen nau Marenek. Oso ondo marrazten du eta arratsalde asko pasatzen ditugu arbela txiki batean marrazten. Gaur historia tokatzen zaigu ikasteko, baina niri ez zait historia gustatzen, nahiago dut orainaldia bizi eta etorkizuna amestu.

Maren ilegorria da. Bere begirada liluragarria da, ez ditu munduko begi ederrenak, baina bere begi ilunen aurreko lenteak xarmangarriak dira, izan ere, ez dira lente arruntak, lente magikoak dira mundua desberdin ikusten du, filtrorik gabe, denari buelta emanaz eta ez du denek ikusten duguna ikusten, garena ikusten du. Bere momentu gustokoena lanbroak itsutzen duenean dela dio, izan ere, itsu dagoenean jendearen barrukaldea, izaera ikusten duela esaten du. Bere uztez, lanbroa pertsonen izaera jakiteko zapia da.

Duela bi aste, bere denborapasa gustokoena argazkilaritza zela jakin nuen, izan ere, beti ekartzen du album zahar bat berarekin. Album sekretua deitzen diot nik, eskatzen diodan bakoitzean ezetz esaten didalako eta inoiz inork ikusi ez duelako. Egun hartan zorrotik erori zitzaion arbela ateratzerakoan eta joan zenean ireki egin nuen. Ezusteko handia eraman nuen, izan ere, ez ziren argazki polit edo ikusgarriak, nahiko xumeak ziren. Baina orduan konturatu nintzen argazki bakoitzaren azpian esaldi bat zegoela. Gogoan dut pinaburu baten azpian “ez naiz lore ederrena, baina norbaitek irekiko banindu, nire altxorra aurkituko luke” jartzen zuela. Baita ere, arroka baten argazkiaren azpiko esaldia gogoratzen dut “gogorrak gara itxuraz, baina urak gutxinaka higitzen gaitu”. Nire ustez argazkirik politenean, Guggenheim museoaren isladarenean, “museoak egun osoa pasatzen du bere itxura ispiluaren aurrean balioesten, baina ahaztu egiten zaio garrantzitsuena museo barruko esposizioak direla” jartzen zuen. Nahikoa kostatu zitzaidan esaldiak ulertzea, baina jakin nuenean, bere kamaratik at zuen ikuspuntua izaten erakusten nahi nuela jakin nuen.

Iritsi zen unea, orduantxe esan behar nion. Pozez baietz erantzun zidan eta larunbat goizean nire etxean agertu zen kamara eskutartean. Kamara erabiltzen erakutsi eta gero argazkiak ateratzera joan ginenean. Gauza askori atera genien argazkia.

Gaur zortzigarren ikasturtea bukatuko da eta opari bat egin nahi diot. Horretarako, egun horretako argazkiak hartu ditut eta bereziki gustatzen zaizkidanak hartu eta inprimatu ditut. Kartulina batean itsatsi ditut. Bihotz baten grafitiaren argazkia, lore more baten argazkia eta gu bion argazkia dira. Izenburuan "Irakasle: etorkizunerako pasaporte" jartzen du eta behean nigatik egin duen guztia eskertzen duen paragrafo bat: "eskerrik asko guztiagatik, baina batez ere zure lenteak erabiltzen irakasteagatik, mundua desberdin begiratzen irakasteagatik, mundua ezagutu dudana baino hobea uzteko gogo sortzeagatik. Zure lenteak dira etorkizunerako pasaportearen gakoa. Eskerrik asko bihotzez, zure ikasle Martin"

Las lentes de Maren

Los niños riendo, corriendo, jugando, saltando. Cada tarde miro el parque desde mi habitación esperando a Maren. Siempre pienso porqué tuve tan mala suerte en la lotería genética, ya que, en vez de estar jugando con mis amigos en el parque, tengo que repasar lo que hemos hecho por la mañana en clase. Yo no aprendo demasiado a través de la letra, para mí es más fácil con dibujos, garabatos e imágenes, y para esto tengo la ayuda de Maren. Dibuja muy bien. Hoy nos toca estudiar Historia. Pero a mí no me gusta la Historia, prefiero vivir el presente y soñar el futuro.

Maren es pelirroja. Su mirada es deslumbrante, no tiene los ojos más bonitos del mundo, pero las lentes de delante de sus oscuros ojos son atractivas, de hecho, no son lentes comunes, son mágicas. Con ellas, se ve el mundo distinto, sin filtro, dándole a todo la vuelta y no ve lo que todos vemos, sino que, ve lo que somos. Su momento favorito es cuando la bruma le ciega, de hecho, cuando está a ciegas ve el interior de la gente, su manera de ser. En su opinión, la bruma es el pañuelo para ver el carácter de las personas.

Hace dos semanas, supe que su pasatiempo favorito era la fotografía, de hecho, siempre lleva un álbum viejo con ella. Yo le llamo el álbum secreto, ya que cada vez que se lo pido me dice que no y nadie lo ha visto nunca. Aquel día se le cayó del bolso al sacar la pizarra y cuando se fue lo abrí. Me llevé una gran sorpresa, no tenía fotos bonitas e impresionantes, sino que eran bastante sencillas. Entonces me di cuenta de que debajo de cada foto había una frase. Lo recuerdo, debajo de una piña ponía: "no soy la flor más bonita, pero si alguien me abriera, encontraría mi tesoro". También recuerdo la frase que había debajo de una roca: "parecemos fuertes, pero el agua, poco a poco nos desgasta". En mi opinión, la foto más bonita era una del reflejo del museo Guggenheim, en la que ponía: "el museo se pasa el día mirándose en el espejo, pero olvida que lo más importante son las exposiciones que guarda dentro". Me costó bastante entender las frases, pero en cuanto lo supe, quise que me enseñara a mirar desde el punto de vista que logra desde su cámara.

Llegó el momento, se lo tenía que decir. Me contestó que sí, contenta, y el sábado a la mañana se presentó en mi casa con la cámara entre las manos. Después de enseñarme a utilizarla, fuimos a sacar fotos. Fotografiamos muchas cosas.

Hoy se acaba el octavo curso y le quiero hacer un regalo. Para ello, he cogido todas las fotos que hicimos ese día y he elegido las que más me gustan para imprimirlas. Las he pegado en una cartulina. La foto de un grafiti de un corazón, la foto de una flor morada y una foto de nosotros. En el título pone: "Profesor: pasaporte al futuro" y debajo un párrafo en el que le agradezco todo lo que ha hecho por mí: "muchas gracias por todo, pero sobre todo por enseñarme a usar tus lentes, por enseñarme a ver el mundo de forma distinta, por encender el deseo de dejar el mundo mejor de lo que lo he conocido. Tus lentes son la clave del pasaporte al futuro. Muchas gracias de corazón, tu alumno Martín".